



AURREJUBILAZIOAK 05-06 IKASTURTEAN EPE BEREZIA ESKAERAK EGITEKO

Maiatzaren 24an indarrean jarri da Espainiako 2/2006 Hezkuntza Lege Organikoa (LOE, BOE 2006ko maiatzaren 4koa), zeinak aldaketak ezartzen dituen aurrejubilazio eskubidea izateko betekizunetan.

LOGSEren IX. Xedapen Iragankorrek MUFACEko irakasle funtzionarioentzat soilik onartzen zuen eskubide hori, baldin eta abuztuaren 31erako 60 urte beteta eta 15 urteko administrazio zerbitzuak izan baziren. Gainera, 1990eko urtarrilaren 1etik aurrera etenik gabe zerbitzu aktiboan egonda izana exijitzen zen.

LOEk, bere II. Xedapen Iragankorrean baldintzak aldatu ditu eta eskubidea onartzen zaie irakasle funtzionario guztiei, Gizarte Segurantzakoak barne, beste betekizunak (abuztuaren 31erako 60 urte beteta eta 15 urteko administrazio zerbitzuak) betez gero. Gainera, ez da exijituko zerbitzu aktiboan egonda izatea 90tik aurrera, azken 15 urtetan baizik.

LOEren arabera betekizunak betetzen dituzten funtzionarioek eskubide hori erabili ahal izateko, Espainiako Ekonomia eta Ogasuneko Ministerioak xedapen horren aplikaziorako jarraibideak argitaratu ditu.

Jarraibide horien arabera, 2005-2006 ikasturtean LOE aurrejubilazio aukera erabili nahi duten irakasle funtzionarioek (Gizarte Segurantzakoak barne) **ESKAERA egiteko EPE BEREZIA** izango dute **EKAINAREN 30era arte**. Gizarte Segurantzakoek, aurrejubilazio eskaerarekin batera, Estatuaren Klase Pasiboen Erregimenean sartzeko eskaera egin beharko dute ere. Aurrejubilazioa eta Mufacen sartzea abuztuaren 31tik aurrera izango ditu efektuak.

Hurrengo urteetan, aldiz, eskaerak epe arruntean egin beharko dira, urteko lehenengo bi hilabeteetan alegia.

Informazio gehiago nahi baduzu, deitu egoitzetara.

<http://www.labsindikatu.org/sektoreak/irakaskuntza/publika>

Araban	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparaldean
Bueno Monreal, 10 Behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 Irakaskuntzaaraba@ labsindikatu.org	Rekalde zumarkalea,62 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 Irakaskuntzabizkaia@ absindikatu.org	San Bladi 1, behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645 Irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatu.org	M.Zelaieta 75, 2.A 31014 Iruñea Telf.: 948 382 474 Faxa.: 948 221 276 Irakaskuntzanafarroa@ labsindikatu.org	13 Marengo Karrika 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 baiona@ labsindikatu.org